

Errotuloak eta toldoak euskaraz jartzeko dirulaguntzak eskatzeko 2010eko deialdia egiten du Muskizko Udalak

1. Xedea.

Deialdiaren xedea honakoa da: Muskizen kokatutako merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetan euskaraz jarritako errotulo eta toldoak diruz laguntzeko baldintzak arautzea.

2. Aurrekontua

Kultura Saileko Euskara Zerbitzuak 2000 euroko aurrekontua izango du onartutako eskabide guztien artean honela banatzeko:

A. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulu bat jartzen duenari, gehienez, horren %50 abonatuko zaio. Gehienez, 360 euro emango da.

B. Euskaraz eta erdaraz, hau da, hizkuntza ofizial bietan idatzita dagoen errotulu bat jartzen duenari, gehienez, horren %30. Gehienez 180 euro abonatuko zaio, beti eta elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu.

3. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun dira Muskizen kokatutako merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduetan euskarazko errotuloak edo toldoak jarri dituzten pertsona guztiak.

4. Kontuan hartu beharrekoak

a) Bigarren puntuko A) eta B) arauak kartel edo elementu bakoitzari aplikatuko zaizkio. Beraz, denda batek, errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.

b) Ezin izango dute 2. puntuko A) eta B) ataletan azaltzen den dirulaguntzarik lortu, bakarrik izena, edo abizena, edo izen-abizenak dituzten errotuluek.

c) Ez du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita edo oker gramatikalik duen errotuluak (Honelakorik gerta ez dadin, irakurri B puntua)

d) Udalak, bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du doan; eta horren berri emango die interesa dutenei.

e) Establezimenduaren jarduera-eskariarekin batera, interesdunei gai honen inguruan lortu daitezkeen dirulaguntzen berri emango zaie. Errotuluak euskara hutsean edo elebietara jartzeko gomendioa egingo zaie.

5. Aurkeztu beharreko agiriak

📄 Eskaera orria + kontu korrontearen zenbakia (20 zenbaki)

📄 NAN edo IFK agiriaren kopia

📄 Aldatutako edo jarritako errotulu edo elementuaren jatorrizko faktura eta ordainketaren agiriak.

📄 Errotulua jarrita dagoela frogatzen duen argazkia. Errotulu bat baino gehiago denean, argazki bana aurkeztu behar da.

6. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaera orriak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira Muskizko Udaleko Erregistro Nagusian, deialdiari dagokion iragarkia “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita eta egutegiko 20 eguneko epean.

7. Ebazpenaren jakinaraztea

Behin eskaeren ebazpena eginda, dagokion Sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die, emango dien diru-kopurua bankuan sartuko dielarik ondoren.